

Kopie! ALCATAZA

## IRUÑEAKO BORTXAKETAREN KASUAN ZIGORTUTAKOAK, BEHIN BEHINEAN ASKE UZTEARI BURUZKO ADIERAZPEN

2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortuak izan ziren bost pertsonak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakiak gizartean sortu duen ezinegon eta kezka handiak, Tolosako Udalak gaiari buruz jarrera plazaratzea eskatzen du, honakoa ADOSTUZ:

**LEHENIK.-** Tolosako Udalak bere babes, maitasuna eta elkertasuna adierazten diete biktimari eta bere senitarteko eta ingurukoei.

**BIGARRENIK.-** 2016ko uztailaren 7an gertaturiko bortxaketaren kasuan zigortutakoak, behin behinean aske uzteko Nafarroako Auzitegiako Autoak jasotzen duenarekin gure erabateko desadostasuna adierazten dugu. Zentzu honetan, gure babes erakutsi nahi diegu aipaturiko autoa inpugnatu nahi duten erakundeei, beharrezkoak diren errekurtsorako bitartekoak erabiliz.

**HIRUGARRENIK.-** Gure etsipen eta haserrea erakusten dugu auto berri honen aurrean, eta justizia eskatzen duen aldarriarekin bat egiten dugu. Erabaki honek babesik gabe uzten gaitu emakume guztiak; sistemak ez ditu behar bezala babesten emakumeen bizitzak eta ez ditu emakumeen eskubideak bermatzen. Hau ez da justizia.

**LAUGARRENIK.-** Emakume guztiek askatasunerako dugun eskubidea aldarrikatzen dugu, eta, era berean, Tolosako Udalak ez duela inolako eraso matxistarik onartzen. Erasoen aurka antolatzen diren mobilizazioekin bat egiten dugu eta deia luzatzen diegu herritarrei, parte har dezaten.

**BOSGARRENIK.-** Tolosako Udalak berdintasunaren alde lan egiteko konpromisoa berresten du, mugimendu sozial, feminista, eta, oro har, herritarrekin, eta bereziki, emakumeen eskubideen defentsan eta patriarkatuaren adierazpen ororen aurka.

EH Bildu



EAJ-PNV



PSE-EE



**TOLOSAKO UDALA**

**2018 EKA. 27**

**SARRERA - ERREGISTROA**  
ZKA. .... 5432 .....